

Nafarroako Esaera Zaharrak. Ituren.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Ituren.

- 1618 *Antziñekuak nolako, giblekuak alako.*
Aurrekoak atzekoari erakusten.
- 1619 *Arbol beratzen, egurra aixe egiten.*
- 1620 *Aur yaio ta aur biurtu.*
Aultzen asi den zartuaz esana.
- 1621 *Beretzat aunitz bear du(e)nak, maiz bertzentzat gutti.*
Oihenart-ek olatsu (659).
- 1622 *Bertzeren alforjak aitzineko aldian, bereak gibleko aldian*
. Besten utseginak ikusten ta maixeatzen ditu, bereak berriz ez ikusten.
- 1623 *Bizi deneraño zartagia eskutik ez utzi.*
Jabetasuna, nagusizkoa gorde il arte.
- 1624 *Danbolin pagatuak, maiz gaizki yo.*
Lan egin ondoan pagatu, ez aurretik.
- 1625 *Dantzan obeki daki lanian baño.*
"Arto-jorran baño".
- 1626 *Eguzkia kirikaka dabil.*
Odei tartean agertu, ez agertu.
- 1627 *Ez da ori gure bildotsa(re)n ama.*
Gure ondasuna ez digu orrek eman.
- 1628 *Gero dionak, bego dio.*
Axularrek ere badio "gero dioenak bego dioela".
- 1629 *Garia salduko ezpada ere, ondu dedilla beinpin (beinikbein).*
Ikus Sakaneko esaeren artean olatsuko bat.
- 1630 *Gaztiak anak arin ta burua ariñago,*
"dantzan obeki daki..."
- 1631 *Gaizki erranak barkatu, ongi erranak ongi artu.*
- 1632 *Itxura ederreko maisua eman ziotek orri!*

- 1633 *Ire burua(re)n gañetik zopak yanen ttiet (dizkiat).*
I baño askoz aundiagoa nauk.
- 1634 *Itxe (etxe) uts, gerra uts.*
Oihenart-ek: "Etxe hutsa, aharra hutsa" (171).
- 1635 *Ilbeltza, beltza. Izenak ola dio.*
- 1636 *Kulpa du(e)na, maiz ixillik.*
- 1637 *Lapur bat gei(ag)o.*
Neskato bat jaiotzen zaienean dauzkatena gañera.
- 1638 *Migel, zaria bete gibel: beste ainbeste birika.*
- 1639 *Ori iguzki txuria! orrek laster ekarriko du euria.*
- 1640 *Orrek ez dik euliak baño fundamentu gei(ag)o.*
- 1641 *Orrek battu (baditu) atiak baño maratil gei(ag)o.*
- 1642 *Txakur txikiak, arroitu aundia.*